



Jarraitzeko, musika profanoa

38. ABESBATZA LEHIAKETA ▶ Musika profanoaren sailean lehiatuko dira gaur helduen sei ahots talde, Leidor aretoan

AKUSTIKA ▶ «Desilusioa» eman dute adituek eta berritzearen ondoren «entzuteko lehorra izaten jarraitzen du Leidorrek» ▶ 2-3



38. Abesbatza Lehiaketa. Ukrainiako Nikolaev abesbatzaren emanaldiaren une bat, atzo arratsaldean, Leidor antzokian. JOKEMI SAIZAR

LEITZA ▶

Herenegun Vanpac-en piztutako sutea ez dute erabat itzali

Sutean zauritutako suhiltzaileak larri baina «egonkor» jarraitzen du ▶ 5

JOAQUIN ZABALA ▶ ENBAXADORE OHIA

«Kubako iraultza osoa ikusi nuen»

la berrogei urtez munduko enbaxada askotan egin du lan ▶ 4



Joaquín Zabala enbaxadore ohia. JOKEMI SAIZAR

38. ABESBATZA LEHIAKETA ▶

Helduen txanda gaur eta bihar

Atzo goizean haurrak aritu ziren eta hortik aurrera helduen ahotsak entzun ahal izan ziren: gaur musika profano atalean lehiatuko dira, 19:30etik aurrera

N. URBIZU - E. EZEIZA

Leidor antzokia jendez lepo izan zen atzo eguneko hiru saioetan. Haurrek seriotasunarekin apurtu eta entzuteaz gain, jendeak haien ikuskizunaz gozatu ahal izan zuten.

Gaur, berriz, musika profanoa izango da protagonista, 19:30etik aurrera Leidor antzokian, 6 abesbatza handi lehiatuko dira. Hauek beraiek bihar, musika sakratuaren sailean abestuko dute.

MUSIKA PROFANOA ENSEMBLE VOCAL PEÑALOSA

Jatorria. Zurizh (Suitza).
Zuzendaria. Pierre Funck.
Taldekideak. emakume bat eta hiru gizon.

Taldeak. Ahots taldeak.
Historia. Errenazimenduko a *capella* ahots errepertorioan espezializatuta daude. Errenazimenduko musikaz gain taldeak erregularki Barrokoko musika eta XX. mendeko interpretatzen ditu. 1996an sortu zuten laukotea.

AROS VOCALENSEMBLE

Jatorria. Vasteras (Suedia).
Zuzendaria. Ove Nee.
Taldekideak. 4 emakume eta 4 gizon.

Taldeak. Ahots taldeak.
Historia. 2001ean sortu zen a *capella* ahots nahasiko talde hau. Abesbatzak ez du liderrik eta denak dira arduradunak. Bere kontzertuak Suedian zehar izaten dira.

ANKAPELLA

Jatorria. Ankara (Turkia).
Zuzendaria. Ahter Destan.
Taldekideak. 8 emakume eta 8 gizon.

Taldeak. Ahots taldeak.
Historia. 1999an eratua, lanbide ezberdinetatik datozen



Kanadako Hamilton Children's Choir abesbatzak maila altua erakutsi zuen atzokoan. JOXEMI SAIZAR



Eresuma Batuko Voces8 taldea Musika Profano atalean lehiatuko da gaur. HITZA

abesbatza musikaren zaletu gazteak osaturik dago. Helburuen artean, Turkian abesbatza musika bultzatzea, turkiar konpositoreei lanak eskatzea eta nazioarte mailan ezagutzera ematea daude. Abesbatza hau ospetsua da nazioartean.

ANIMA VOCAL ENSEMBLE

Jatorria. San Petersburgo (Errusia).

Zuzendaria. Victor Smirnov.

Taldekideak. 6 gizon.

Taldeak. Ahots taldeak.

Historia. 1992an sortu zen eta San Petersburgoko Rimsky Korsakov kontserbatorioko graduatuak dira denak. Errusia osoan eta atzerrian kontzertuak eskaini dituzte, kritika oso onak jasoaz. 2003an Tolosako lehiaketan parte hartu zuten eta Musika Profano Sailean bigarren geratu ziren.

VOCES8

Jatorria. Finchampstead.

Zuzendaria. Barnaby Smit.

Taldekideak. 2 emakume eta 6 gizon.

Taldeak. Ahots taldeak.

Historia. A *capella* zortzikote hau. 2005ean eratua izan zen eta berehala izugarriko ospea lortu zuen Goriziako (Italia) Nazioarteko 44. abesbatza lehiaketan bi sari irabaziz. Voces8-ek, klasikoa edo arina, gibbons edo Allegritik Beatles eta jazz musikaraino, baita beraiek egindako moldaketak ere lantzen dituzte.

THE UNIVERSITY OF LOUISVILLE CARDINAL SINGERS

Jatorria. Louisville (AEB).

Zuzendaria. Kent Hatteberg.

Taldekideak. 16 emakume.

Taldeak. Ahots taldeak.

Historia. 1970ean eratu zuen William C. Lathonek University singers izenpean. 1997tik Kent Hatteberg-ek zuzentzen du. Egun, nazioartean agerraldi ugari egiten ditu. AEB-ko abesbatza onenetako bat bezala ezagutzen da.

hilberriak ▶



**Jose Luis Berasategi
Galarraga**
'Patxo'



AIYO PATXO
IKUSIKOAITUK

Hire lagunak: 'Txikiye', 'Galax', Patxi, 'Zaldiye', Koro, Amaia, Karmen, Salo, 'Enbortxo', Garbiñe, Eba, 'Luxie', 'Gafas', 'Txiz', Marijo, Marije eta koadrilako umiek.

AZPEITIYEN, 2006ko azaruen 2yen

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Oñatiko Ganbara Abesbatzak Folklore sailean, zuzendariak dantza egin zuen kolore bizien artean. J.S.

ESTEBAN URZELAI ▶ OÑATIKO GANBARA ABESBATZAKO ZUZENDARIA

«Akustikarekin desilusia eman dugu; lehorra izaten jarraitzen du»



JOXEMI SAIZAR

Iaz, talde euskaldunik ez bazen izan ere, aurtan bi abesbatzek ordezkatuko dute Euskal Herria. Horieta bat Oñatiko Ganbara abesbatza izango da. Hala, abestu baino lehenagoko entseguetan ari zirela hitz egin zuen TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK, Esteban Urzelai abesbatzako zuzendariarekin. **Parte hartuko duen abesbatza gipuzkoar bakarra izango zarete.**

Izan ere, Tolosako lehiaketaren maila oso altua da, eta zaila da hemen parte hartzea. Errespetu handia ematen du, eta etxean abestea ezberdina da. Gaizki egiten baduzu ere, kanpoan ez du horrenbesteko garrantzirik. Hemen berriz beste gauza bat da, jendea ezaguna baita. **Lehenengo aldiz hartzen duzue parte Tolosan?**

Bai, niretzat lehenengo aldia da, eta baita abesbatzarentzat ere. Hala ere, taldeko batek baino

gehiagok hartu izan dute parte.

Lehiaketa honetan parte hartuko duten gainontzeko abesbatzek ikusita, maila altua al dago?

Beste abesbatzen izenak entzun ondoren ikusten da baietz. Gainera, antolatzaileek ere esan dute, 750. urteurrena dela eta, oraindik eta maila altuagoko parte-hartzaileak bilatu dituztela. Baina beno, gu ere, ahalik eta ondoen egiten saiatuko gara.

Abesbatza gaztea zarete, baina esperientziaduna.

Talde gaztea da, batz bestekoa egingo bagenu, 24 urte edo izango litzateke. Lehengo, beste abesbatza batzuetan aritutako jendea hasi zen. Baina orain jada, Ganbara, beste-lakoek ere osatzen dute.

Gogotsu al dago taldea? Ilusioarekin eta gogo handiz etorri gara, ahal dugun hobe-

kien egiteko asmoz. Gainera, nahiko sentsazio ona daukat. Hala, guk ahal dugun guztia emango dugu, eta gero ikusi egin behar epaimahaiak zer erabakitzen duen.

Leidorreko akustikaz horrenbeste hitz egin ondoren, zer moduzkoa iruditu zaizu?

Gehienak bezala, desilusia eman dugu. Atzo (herenegun), sarrerako kontzertua entzuteko aukera izan nuen, eta ez dakit abesteko nolakoa izango den, baina entzuteko behintzat, lehorra izaten jarraitzen du. Komentatu dutenez, oraindik barniz geruza bat falta da emateko, eta agian horrek ere eragina izango du.

Orokorrean, zer moduz ikusten duzu euskal abesbatzen egoera.

Beti aipatzen den gauza bat da, eta esaten da aurrekoarekin konparatuz, egun egoera ez dela ona. Baina nik, duela 20 urte zegoen egoera ez dut ezagutzen, eta nik uste, oraingoa ez dela horren txarra. Agian ez dira egongo puntako bi abesbatza edo, baina daudenak, orokorrean maila oso ona dute. Gainera, kanpora asko ateratzen gara.

Estilo aldetik, zein eskola musikal gustatzen zaizkizute?

Europear estiloak jorratzen ditugu batik bat, baina baita amerikarrak ere. Bestalde, euskal egileen eta folkloreko kantauk ere abesten ditugu, kantu onak baitira eta eskura ditugu. ◀

IRITZIA ▶
MIGEL ZEBERIO (KORU ETA ORKESTRA ZUZENDARIA)

Paris baino, Mosku



raientzat eta baita ikusleentzat ere.

Asteazken goizak aldiz beste irrifar eta aurpegi goxoago bat eskaini zigan. Horrenbesteko arrakasta duen haurren saioa halakoa izan baitzen. Atarikoan Poloniako Pueri Cantores Thorunirenses mutikoei garai bateko kamarero jantziez, egin behar ez den ahots lanaren adibide izan ziren.

Ondoren, pittinka berotuaz joan ginen. Alemaniatic Gewandhaus Kinderchor Leipzig-eko zuzendari gaztea saiatu zen zekienetik hoberena ematen. Ahots teknika mugatuak eta bere jakinduria ez zabalagoak mugatu zuten. Tallingo High Schooleko taldea, maila onekoa berau, maila onean aritu zen, baina zuzendariaren jarrera edo tentsioak zenbaitzutan freskura ekiditen zion, aurretik egina zuten lan eskerga behar adina ez igortzera arte.

Burrumba Kanadatik iritsi zen. Bat-batean ikuslegoan ziren haurrak esnatu ziren perkusio hotsak entzun orduko. Zuzendaririk gabe eta kantuan sartu ziren antzokian. Nabarmentzeko a zuten gorputz adierazpena, beharbada emaitza ororen gainetik adierazgarria.

Hala ere, hau abesbatza lehiaketa denez, gainetik zizutela uste Errusiako Vesna The Children's Choir-eko kantariak. Aurrekoan Tolosako abesbatza lehiaketara etorri zirenean, beraiekin zuten zuzendariaren ordez, Nadede Averina andreak gidatu zuten izar txiki baina handien taldea eta espero genuen bezala soinu tresna aberats, orekatu eta malguena erakutsi zuten. Musikaren parametro gehienetan ia perfektuak izateaz gain, goxotasuna, hurbiltasuna eta komentzimendu sarkorrena lortzeko gaitasuna erakutsi zuten gaztetxo errusiarrek.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. Eskualdeko albiste interengarri bat baldin baduzu, eman hitzari ezagutzera, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO webgunean dagoen atal honen bitartez.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 km liburuarekin. 18ko llantak eta tetxua. Egoera oso onean. 14.000 euro. Interesatuek deitu telefono honetara: 943 65 41 43.

JOAQUIN ZABALA ▶ ENBAXADORE OHIA

«Kubako iraultza osoa ikusi nuen, herrialde kapitalista komunista bilakatzea»

la berrogei urtez munduko enbaxada askotan egin du lan; Madrillgo erretirotik bere bizitza eta iritziak azaldu ditu

JOXEMI SAIZAR

Karrera diplomatikoa egin eta munduan zehar, enbaxadaz enbaxadaz ibili da tolosar hau: Londres, Kuba, Suitza, Danimarka, Siria, Polonia... Zabalarreta etxean jaio zen Joaquín Zabala Alzibar-Jauregi, izen handiko familian. Madrillgo etxean mintzatu da HIRZAREKIN. **Nork egin zuen Zabalarreta?** Nire birraitona Ladislauk, 1844an, udako egoitza bezala. Neguko Santa Marian zegoen, Aburruza jauregia, apaizen etxea izan dena duela gutxi arte. Circulo Integrista izan zen gero. Bere aita, Manuel Jose, Aranburun bizi zen, emaztearen familiarena. Gu Ordiziatik gatoz. Nire birraitonaren aita, Manuel Jose, Parisera emigratu eta han lehengusua zuen, Salazar bat, Montehermosoko markesa, Jose Bonaparteren laguna. Jose Bonaparte erregea ezkondu zenean bere guardia pertsonaleko buruarekin ezkondu zuen eta Carres-era etorri ziren, Ipar Euskal Herrian. Haren kopia da Zabalarreta.

Paraje ederra da oraindik.

Ibai-gain nire gurasoak ezkondu zirenerako egin zuten, 1904ean. Bere lagun bizkaitarrek Gernikako arbolaren muskil bat oparitu zioten eta han dago. Nire sei senideak han jaio ziren, ni ez, ni Zabalarretan jaio nintzen. Amona hil zenean utzi zuten Ibai-Gain eta Genaro Ruiz de Arkauterengana pasatu zen, separatu arte. Zabalarreta inguruko lur guztiak familiarenak ziren: gaur egun eskolapioen ikastetxea dagoena, Bidebieta ingurua, Iparragirre baserria, San Blas, kanposanturaino. Gero apaiz frantses batzuei, sakramentinoei, eman zieten zati bat aitona-amonek.

Noiz ateratzen ziren Tolosatik?

16 urterekin. Gerra Zibilak Huescan harrapatu gintuen, amaren familiaren etxean. Kataluniako CNTren preso egon ginen, zona errepublikarra zen. Mekaniko batek salbatu gintuen. Zaragozara joan ginen. Hango osaba-izebek egunkariak izkutatzen zizkiguten. Tolosan hamar lagun fusilatu zituztelako eta gure familiako



JOXEMI SAIZAR

norbaiz zegoela tartean uste zutelako, baina ez zen hala izan, jende eszituagoa zen. Gu liberalagoak, foruzaleagoak ginen, edo modaz pasatutako integristak. Irailaren hasieran iritsi ginen Tolosara. Jose Ramon eta Federico anaiak Buruntzako frontean zeuden erreketeekin. Frontera 17 urte egindakoan joan nintzen, Kataluniara, 1939an. Sei-zortzi hila-bete egin nituen errekete.

Non egin zenituen ikasketak? Zuzenbidea Zaragozan ikasi nuen, baina mobilizatu nindutenez, 15 urtez, Loiolako koartelean sartu behar izan nuen eta karrera Valladoliden bukatu nuen. Ondoren ikastaroak egin nituen eta oposizioa karrera diplomatikoko sartzeko.

Nolakoa zen karrera?

Gogorra. Hizkuntza asko, kultura eta hizkuntza azterketak, materiak —zuzenbide nazioartea, politikoa, ekonomia—. Gero bizpahiru urte Madrilen egin nituen, Kanpo Arazoetarako ministeritzan.

Nora izan zen lehen destinoa?

Londresera, Francok lehen enbaxadorea izendatu zenean, Munduko Gerrako enbaxadoreen erretiradaren ondoren, Miguel Primo de Rivera izendatu zuen eta berarekin joan nintzen. Bost urte izan nintzen han: Jorge VI.aren heriotza, gaur egungo erreginaren izendapena, Churchill agurtu nuen... Ikasketa interesgarria. Arrazionamendu garaia zen, bizitza zaila, baina ondo pasatu nahi zuten gerra ondoren.

Eta hura bukatutakoan?

Leku zoragarri batera joan ginen eta sei urte egin nituen, hiru dibertsio bezala eta beste hiru interes politikoa eta berrikuntza bezala: Kuban. 1956-62 garaian, Fidel Castro baino lehen, harekin ez zegoen dibertsiorik, Batistarekin. Nire enbaxadorea Juan Pablo Lojendio zen, donostiarra. 20 urtez idazkari izan nintzen berarekin hainbat lekutan. Iraultza osoa ikusi nuen, herrialde kapitalis-

ta bat herrialde komunista bilakatzea. Kuba aldatu egingo zela uste zuten, kortxoeko irla zela zioten, urperatzen ez zena. Pentsa, zenbat ari den irauten. Gero Espainiara itzuli, urte pare-pare pasatu nuen, ezkondu nintzen Eugenia Sangroniz algotarrarekin —aita enbaxadorea izan zen Erroman eta Aljerren— eta Suitzara destinatu ninduten urte pare batez. Eta handik herri monotono, aspergarri, sozialista eta oso oso garbira joan ginen, Danimarka. Lauzpabost urte egin genituen. **Non jarraitu zenuen karrera diplomatikoa?**

Itzuli Espainiara, Franco hil zen eta Erromara joan nintzen kultur kontseilari bezala. Bi herrialde ditugu denek, nik Espainia eta Italia. Kulturalki garrantzi handia du Espainiak han. Garai oso nahasia zen Vaticano II.a kontziliarekin, aplikatu edo ez aplikatu zalantzak zituen Pablo II.a Aita Santuak. Fiumicino aireportuan atentatu terrorista islamista bat izan genuen emazteak eta biok, hogegei eta pilo lagun hil ziren. Arrisku zuzeneko nire bizitzako une bat izan zen. 1976an Siriako eta Txipreko enbaxadore izendatu ninduten. Areilza ministro zela. Mailaz igo nintzen, idazkari maila guztiak gaindituta. 3. mailako ministroa nintzen tituluz lehendabizi, baina enbaxadore kargua okupatuz. Titulua jubilatakoan iritsi zitzaidan. Txipreko kolpe militarra ezagutu nuen. Siria isolatuta zegoen, herri komunistak bakarrik zituen alde Diktadura krudela zen, plazetan gizon urkatuak zeuden. Politikoki oso zaila zen, totalitarismo handia zegoen, denak etsaitzat zuten, eta kulturalki, oso interesgarria. Handik Poloniara destinatu ninduten 1978tik 1982ra. Juan Pablo II.a izendatu baino egun batzuk lehenago.

Zailtasun handienak non izan dituzu?

Herri komunistetan beti. Polonia askoz irekiagoa zen. Iritsi nintzenez gerra ondoren geundela ematen zuten, Francorekin bezala, apaizak, mojak, peregrinazioak, errosoariak, jende guztia errezatzen... Une kritikoa izan zen. Beraien aldaketa Moskutik etorriko zela uste zuten, baina inbasioaren beldurra zuten. Ez zen izan, dekadentzia osoan zegoelako Polonia. Ez zen herrialde komunista, libreagoa zen.

Sozialistak gobernura iritsi zirenean, zer gertatu zen?

Birziklaia izan zen. Atzerrian urte asko egon ginela pentsatu zuten eta bigarren idazkari bezala egon nintzeneko postuak proposatu zizkidaten, baina ez nuen nahi izan eta 60 urterekin atsedena hartzea pentsatu

ZABALARRETA

«Inguruko lur guztiak familiarenak ziren: eskolapioen eskola, sakramentinoak, San Blas, Bidebieta...»

ATENTATUA

«Erromako aireportuan atentatu terrorista islamista izan genuen, arrisku zuzeneko nire bizitzako une bat»

EUSKAL HERRIA

«Gaizki ikusten dut bere egoera; inoiz ez dut bakean ikusiko; pena da independentzia hainbeste nahi izatea»

nuen, erretiroa. Denbora asko Algortan bizitu gara eta orain Madrilen.

Zen gobernurekin moldatu zara hobeto?

Aznar zoritxarrekoa izan da, nagusia zela uste zuten, Azoresetan besarkada ematen Bushi. Eta Polancoren inperioari muga jartzeko ez zuen ezer egin. Euskal gaia larriagotu egin zuten. Suarekin oso ondo moldatu nintzen eta Oreja ministroa zenean ere bai. Baita Francoren garaian ere.

Tolosako zein oroimen duzu? Haurtzaroen konturatu nintzen ezin zela klase gizarte batean bizi. Aintzinak ez du garrantzirik izan behar eta orduan aintzinarri garrantzi handia ematen zitzaion. Hori Castilla eta beste leku batzuk baino irekiagoa zela Tolosa.

Nola ikusten duzu gaur egun? Ez zait gustatzen zoriontsu izan naizen tokietara itzultzea. Oso abertzalea ikusten dut. Hirigintza ondo dago, baina ez du aurreratu beste batzuk adina. Karlista asko zegoen eta abertzaletasuna hortik dator.

Eguneko politika jarraitzen al duzu?

Ibarretxe oso urduri dago alde batera izaten ari direlako, Maragall bezala geldituko da. Zapaletoren kontuz ibili, oso gaiztoa delako. Aznar aurrez aurre zihon, oso zuhurra ez zen. Honek dena esaten du, baina ez du ezer betetzen. Irteerarik gabe gelditzen ari da.

Eta bake prozesua?

Gaizki ikusten dut Euskal Herriaren egoera. Inoiz ez dut bakean ikusiko hura, inork ez du ezer eman nahi. Pena da independentzia hainbeste nahi izatea. Orain dagoena baino gehiago zaila da lortzea.

LEITZA ▶ EZBEHARRA

Vanpac-eko sutea ez dute erabat itzali

Zauritutako suhiltzailea larri baina «egonkor» dago, lankideen arabera



Atzo goizean oraindik ere paper fardoen gainean ura botatzen jarraitu zuten, garrak itzaltzeko. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Herenegun hasitako sutearen eraginez Leitzako herrian oraindik ere sutearen usaina dago. Vanpac paper fabrikako kiskalitako eraikinean lanean jarraitzen dute Iruñeko suhiltzaileek.

Iruñeko suhiltzaile zauritua, C.E.S., «egonkor dago: pelbisa eta izterrezurra hautsita dauka, baina horrez gain, gainera eroritako zama handiaren zampaketa jasan behar izan zuen».

Bi kamioi dituzte bertan, eta errekatik ateratzen dute ura. Suhiltzaileek bobinen gainean ura botatzen aritu ziren, baina «hemen paper pila dago, eta ura ez da ongi sartzen fardoetan, asko kostatzen ari zaio».

Arratsaldean Altsasuko bi suhiltzaile izan ziren, goizeko Iruñeko hiruekin lan egiteko. Dirudenez, paper fardoak zabortegira eramán zituzten arratsaldean, pala baten laguntzaz. «Nahiz eta surik ez egon, fardoetako berroak barruko egitura desegin, urtu egiten du, eta hori arriskutsua da: askotan ia hobe da dena erorita dagoenean joatea, arrisku gutxiago dago».

15 langileak, zain

Vancap enpresan 15 bat langilek egiten dute lan. Hurrengo egunetan enpresako ordezkariak zehaztuko dute nola antolatu gerorako lana. Lehen neurri gisa, Adunan langile horietako batzuk duten tailerrera bideratzea izango dela adierazi dute barne iturriek.

*Sustapenak 3 hilabetetako kontratuz egiten dira. 2006/12/01 baino lehen egindako kontratuz egiten dira. Sustapenaren arabera, produktu guzietan kontratuetan segituko dute, bezeroak, besterik jakinarazten ez bada. Tarifak: 2006/12/01 baino lehen egindako kontratuz egiten dira. 2006/12/01 baino lehen egindako kontratuz egiten dira. Enea amatu ondoren, produktuaren prezioak hauek izango dira: Kujala 15 €, Alotis jarria lankoa 18 €, 3 megako Banda Zabala 39 € eta TB Osoa 24,90 € (diskoetzailea sartu gabeko). Zeharkako zergak ez daude sartuta. Galdetu sustapen honen baldintzei buruzko informazioa saltokietan edo 1717 telefono-zenbakian.

Zure bizilagunak badu jada. Probatu nahi duzu?

Egin proba 3 hilabetez zure etxean

Telefoniaren Hileko Kuota	} 1€ / hil
+ Finkoetarako Deiak 24 Orduz	
+ Banda Zabala 3 Mega	

Eta, gainera, proba ezazu TB Digital Osoa; hilean beste 10€ bakarrik.

Eskatu informazioa saltokietan edo 1717 telefono-zenbakian.

lardies
konkiso jantzizaki

ostalaritza
saneamendua
jantzi erregionalak
arropa urdina
etxeko arropa
seguritatea

Tel.: 943 650 057
San Frantzisko, 23 • Tolosa

 zuntzOptikoa
gauzak aldatu egin dira

 Euskaltel
zuretzat

BERROBI ▶

Erleen dohain ezezaguna

Erleen bitartez sortzen den apiterapia gaixotasunak sendatzeko erabiltzen den terapia osagarria da, Euskal Herrian arrotza izan arren, nazioarte mailan indar handia du

MADDI SOROA

Denok dakigu zer diren erleak. Denok dakigu ez ditugula oso maiteko, gerturatuz gero, hurrentzen saiatzen baikara. Askotan beldurra izaten diegu, beste askotan nazka. Denok dakigu zer diren erleak. Bai, baina ba al dakigu zertarako gai diren? Ba al dakigu zein dohain dituzten? Ba al dakigu apiterapia zer den?

Apiterapia ez da gaixotasunak sendatzeko modu alternatibo bat, terapia osagarri bat baizik. Apiterapiak, produktu naturalak erabiltzen ditu, koloratzaile, kontserbagarri eta beste motako toxikorik gabe. Apiterapiaren barnean, produktu ezberdinak aurki ditza-kegu, guztiak ere erleetatik eratorriak direlarik: apitoxina —erleen pozoina—, argizaria, erregina-jelea, ezitia, polena eta propolia.

Apiterapiak, gorputzean dauden gorputz arrotzen aurka erasotzen du, horregatik, modu batera edo bestera, giza gorputzari laguntzen dion terapia osagarria da apiterapia. Beronen erabileren artean, osasuna berreskuratzea, gaixotasunak sahiestea eta bizi-modu neketsua indartzea daude.

Euskal Herrian arrotza izan arren, nazioarte mailan indar handia hartzen ari da apiterapia, Hego Ameriketako herrialdeetan, batez ere.

Erlearen eboluzioa

Erlea, gizakia baino 40 urte lehenagotik sortua da. Lehenengo erleak Baltikoko itsasoan aurkitu zituzten anbarretan txertaturik. Geroztik hainbat aztarna aurkitu izan dira, horietako bat, esaterako, Mesolitikoan aurkituriko marrazki bat da, emakume bat ezitia biltzen, hain zuzen ere.

Garai batean oso ohikoa zen baserrietan erleak edukitzea, naturarekin lotura estua izanik probetxu handia ateratzen baitzieten erleen produktuei. Ohitura hori, ordea, galduz joan da eta gaur egun geroz eta erletegi gutxiago dago. Hasiere batean erle basatiek gogoko izaten zuten zuhaitzetako zuloetan kokatzea. Gizonak, ordea, zuahitzen tankerako lehen erlauntza prestatu zuen eta bertan bizitzaren ziren. Egun, gehienak erlauntzetan biltzen dira.



Erlauntza bateko familia, erregina batek, 1.000 eta 2.000 erle mando inguruk eta 30.000 eta 50.000 erle langile inguruk osatzen dute. HITZA

APITERAPIA ▶ ERABILTZEN DITUEN PRODUKTUEN INGURUKO DATUAK

EZTIA

Osaketa. Karbohidratoak %75-80, proteinak %0,38, hezetasuna %17-20, azidoak %0,1 eta mineralak %0,2.

100 gramo biltzeko.

Erletegitik bataz beste 3 kilometro dauden 1.000.000 lore bisitatu behar dituzte erleek. 15.000 bidai egiten dituzte, guztira 45.000 kilometro (munduari itzuli bat). Erleek, 25 gramo ezti gastatzen dute lan guzti hori egiteko.

Erabilerak. Kirolari eta adinekoentzako elikagai bezala erabiltzen da, kaloria, bitamina eta mineral asko baititu; erredurak sendatzeko, zikatritzatzaile gisa edota larruazala babesteko ere erabili ohi da.

POLENA

Osaketa. Karbohidratoak %40, lipidoak %5, protidoak %35 eta bestelakoak (bitaminak, mineralak, betakarotenoak, kerzetina edota rutina) %20.

Ezaugarriak. Landareen loreak ernalarazten dituen osagai maskulinoa da polena. Erleak proteina iturrizat erabiltzen du larben janari gisa.

Polen biltzeko. Erleek loreak bisitatu dituzte eta polenen kalitatea aztertzen dute, proteina gutxikoa mesprexatuz. Zama osatzean etxeratu egiten dute. Gizakiak, tranpen bidez polena bildu, lehortu, garbitu eta ontziratzean -20 gradutan izozten du.

Kilo bat polen biltzeko. 67.000 bidai egin beharoko lituzke erleak, guztira 200.000 kilometro hegan (munduari 5 itzuli).

Erabilerak. Kirolari edota down sindromea duten haurrentzat erabiltzen da, anemia kasuetan, suspertze eta estimulatze mailan ere bai. Desintoxikatze prozesuetan, begietako gaitzetan, hezur eta giltzaduretako arazoetan edota prostatitisaren prebentzian ere erabili ohi da polena.

PROPOLIA

Osaketa. Erretxina %80, berezko olioia eta argizaria %25, substantzia lurrunkorrek %10, polena %5 eta zakarra %5.

Ezaugarriak. Erleen produktuen artean propolia da eta erlauntzarako sarrera txikitzen du. Erleek, erlauntzatik atera ezin dituzten gorpuzkiak baltsamatu eta erlauntza barruko piezak egonkortzen dituzte.

Propolia erlauntzan. Zirrikituak isteko erabiltzen da eta erlauntzarako sarrera txikitzen du. Erleek, erlauntzatik atera ezin dituzten gorpuzkiak baltsamatu eta erlauntza barruko piezak egonkortzen dituzte.

Erabilerak. Besteak beste, bakterioei, parasitoei, tuberkulosiari, birusei edota allergiei kontra egiteko eta analgesiko edota anestesiko gisa erabiltzen da.

ERREGINA-JELEA

Osaketa. Ura %68, proteinak %12,0, azukreak %8,5, lipidoak %5,6 eta errautsak %0,8.

Ezaugarriak. Erleek beren barnean jaregiten duten

produktua da. Erle gazteek faringe azpiko eta barailetak guruinetatik jaregiten dute. Erregina amak jaino ondorengo egunetan erregina jalea jaten du, hortik datorkio izena.

Erabilerak. Mikroelementu eta antibiotiko natural asko ditu, burmuina bizkortzeko eta astenia kasuetan erabiltzen da, baita arlo kardiobaskularrean eta hipotentsio kasuetan ere.

APITOXINA (ERLEEN POZOIA)

Osaketa. 2 petido (melitina %50, apamina %0,3), 2 enzima (fosfolipasa eta hialuronidasa), histamina, hainbat azido (fosfatao, triptofanoa, kolina...) eta mikroelementuak (burnia, zinka, sufrea, kaltzioa, magnesioa...).

Erabilerak. Hezurretako mina (artritis, esklerosia, artrosia eta erreuma), esklerosi anizkoitza, parkinsona edota bronkiotetako asma sendatzen laguntzeko; edota antialergiko, analgesiko, antiinflamatorio eta estimulatzaile gisa.



Luis Mari Intza erlezaina, Berrobin dituen erlauntzetatik erleak ateratzen gorputza babesturik duela. M. S



Erlauntza bakoitzak hamar panel inguru izaten ditu. MADDI SOROA

LUIS MARI INTZA ▶ ERLEZAINA

«Hemengo medikuek apiterapia probatzea nahiko nuke»

Sortzez ofiatiarra izan arren, hamar urtez geroztik Tolosan bizi da Luis Mari Intza. Ezagutza zabala du apiterapiaren inguruan eta 20 erlauntza ditu Berrobin. Apiterapia ezagutarazteko nahia helarazi nahi du lau haizetara.

Nondik datorkizu erleenganako zaletasuna?

Oñatiko nire osaba batek erleak zituen eta oso maiz joaten nintzen hari laguntzera. Behin, Bartzelonako erlezaleen bilera batera joan eta erlauntza batekin bueltatu nintzen etxera. Berastegiko zelai batean jarri nuen erlauntza, baina lapurtu egin zidaten. Hainbesteko ilusioa nuen, non hamar nukleo erosi nituen beste lagun batekin batera. Gaiaren inguruan irakurtzen eta ikasten hasi nintzen, erleen produktuekin zer egin daitekeen eta abar.

Apiterapiako kongresu antzeturatzen izan zara.

1992an Argentinan indar handia hartu zuen propoliak eta egun batean, bertako propolia adulteratu eta 23 pertsona hil ziren. Apiterapiaren aurkako sabotajea izan zen. Harrezkeroztik kezka sartu zitzaidan eta Oviedon (Espainia) zegoen mediku apiterapeuta kubatar batekin harremanetan jarri nintzen apiterapiaren inguruan gehiago jakiteko asmoz. Oso lagun onak egin ginen eta kon-

gresuetan parte hartzen hasi nintzen. Apiterapeuta asko ezagutu nituen eta orduztik ahal dudan kongresu guztieta-rra joaten naiz.

Argentinako sabotajearen zergatia azaltzerik bai?

Botiketan laborategi bat izan zenaren ustea dago, erlegintzak medikuntzari konpetentzia egingo ziotenaren beldur baitziren.

Apiterapia medikuntza gisa erabiltzearen aldekoa zara orduan.

Bai, bai, dudarik gabe. Ni ez naiz apiterapeuta eta ezta medikua ere, baina katarroa, gripa edota eztarriko gaitzentzako propolioekin gargarak egitea bezalakorik ez dago sendatzeko. Dentista batzuk, adibidez, hasiak dira propolioa erabiltzen.

Zertarako gai da apiterapia?

Kongresuetako batean, apiterapeuta italiar baten operazioa ikusi nuen. Hanko hezur-reen zuloa egin eta ezitz bete zion guztia. Ez zioten drenajeri eta ezertxo ere jarri. Bada, hurrengo urtean gizon hura ikusi nuen beste kongresu batean eta guztiz sendatua zegoen. Beste behin, Kubako erreduzako gaixoen eritexe batera joan nintzen. Heritexe hartan, soilik ezitia eta propolioa erabiltzen zituzten erreduzko zituzten gaixoak sendatze-



MADDI SOROA

ko. 15 urteko neska batek bizkar guztia erretea zeukan haurra zela amari irakiten zegoen ura bizkar gainera erorita. Medikua eztiarekin tratatu zuen gaixo hura eta ez zitzaion marka bakar bat ere geratu. Garbi ikusten zen azal berri berria etorri zitzaiola. Eztiak erreduzko sendatzeko duen ahalmena ikusi nuen neure begiekin, apiterapiak funtzionatu egiten duela, alegia.

Konbentzitu ezazu pertsona bat erleen produktuen sendagarritasunaz.

Badira, esaterako, diabetesa eduten pertsonak azalean nekuz sendatzen diren zauriak egiten zaizkienak, bada, pro-

polioa eta eztiarekin egin izan ditugu probak eta ondo sendatu izan ohi dira. Prueba egiteko esango nioke jendeari.

Euskal Herrian badago apiterapeutarik?

Zoritxarrez, ez, Euskal Herrian, fakultateetan irakasten ez dena ez da existitzen; horrelaxe dago gizartea. Hainbat medikuri eman dizkiet apiterapeutek egindako lanak, baina ez die jaramonik egiten. Ez dakit interesatzen ez zaielako edota beldur direlako egiten duten hori. Ez dira ausartzen apiterapia erabiltzera. Nik ez dut inolako interes ekonomikorik horretan. Nahi dudana gauza bakarra da aditzera eman

badagoela beste era bat gure gaixotasunak zaintzeko.

Eta nazioarte mailan?

Argentinan, Kuban, Alemanian, Frantzian, Txinan edota Errusian apiterapeuta oso onak daude, baina soilik apiterapia erabiltzen duten eritexeak ere. Oso zabaldua dagoen terapia da.

Zein litzateke zure erronka?

Nire erronka apiterapiaren existentzia zabaltzea litzateke. Jendeak, gaixotasunak prebentitu eta sendatzeko beste modu bat badagoela jakitea nahiko nuke. Pixkanaka, apiterapia medikuntzan sartzea nahiko nuke, hemengo medikuek apiterapia probatzea. ◀

AGENDA ▶

38. ABESBATZA LEHIAKETA

Tolosa. Gaur, 19:30ean, Leidor antzokian, Musika Profanoa sailean parte hartuko duten Ahots Taldeen ekitaldia.

DEIALDIAK

Orexa. Kultur Astearen baitan, udaltxeko ganbaran, 21:30ean *Bake prozesua zertan da?* hitzaldia izango da entzungai, LABeko Rafa Diezen eskutik.

Tolosa. Ahotsak plataformak bilera egingo du, 20:00etan Kultur Etxean. Emakume guztiei deia egin diete bertara daitezen.

Tolosa. XX. Babarrun Lehiaketa dela eta, lehiaketaren ostetan izango den bazkarirako sarrerak salgai daude dagoeneko. Interesatuak, Gure Kaiola elkartera, lan egunetan, 19:30etatik 21:00era joan behar dute.

ERAKUSKETAK

Alegia. Maria Rosario Ormazabalaren koadroen erakusketa azaroaren 5era arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.

Ibarra. Iñaki Vergararen *Artzainaren Bizitza* txuri beltzeko 35 argazkien erakusketa Kultur Etxean.

Tolosa. *Esperientziak*, XX. mendeko memoriaren berreskuratze proiektuko elkarrizketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Santu adina (ko)lore

TOLOALDEA-LEITZALDEA ▶ Jende ugari hurbildu zen Santu Guztien Egunean kanposantuetara, joan direnak gogoan izan eta hilobiak lorez apaintzera



Tolosa. Euria egin arren, jende mordo hurbildu zen kanposantura. NOELIA LATABURU



Leitza. Meza garaian ere batzuk izan ziren hilerrian. NEREA URBIZU



Ibarra. Lore koloretsuak apaindu zuten kanposantua. N. LATABURU

ERREDAKZIOA

Egun goibela izanagatik, inoiz baino itxura ederra-goa eta koloretsuagoa zuten atzokoan bi eskualdeko kanposantuek. Izan ere, Santu Guztien Egunean aitza-kian, asko eta asko izan ziren kanposantuetara gerturatu eta hilobiak lorez apaindu zituzten herritarrek, joandakoak gogoa. Hala baiezatu ahal izan zuen, bederen, HITZAK, Tolosa-ko, Ibarra-ko eta Leitza-ko kanposantuetara eginiko bisitan.

Udalak antolatutako garraio publikoa aukeratu zuten tolosar batzuk; haatik, gehienek ere auto partikularrak aukeratu zituzten hilerria bertaratze-ko, oinez igo zenik ere bazegoen arren.

Baina hori bai, guztien eskuetan loreak. Horretarako inguruko loradendek gogor egin behar izan dute lan aurreko egunetan eta probetxu ederra ateratzen diote ohiturari; jai eguna izanagatik, euren denda ireki zuenik ere izan baitzen atzokoan.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Ixabel Izeta Gurrutxaga.
 Gaur 100 urte. Zorionak familiaren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tarte

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...